

#### 1. Sarrera

Euskal esaera zahar asko bitxi bezain misteriotsu egiten zaizkigu. Bitxitasun hori, neurri handi batean behintzat, erdaraz parekorik aurkitzen ez delako da. Beste zenbait euskal esaera zaharrek erdarazkoekin parekotasuna badute ere, formulazioan erabat desberdinak dira. Kasurako, Ambrosio Milangoak IV. mendean ‘Cum Romae fueritis, Romano vivite more’ esaldia ingelesak ia modu berdinean hartu zuen: ‘When in Rome, do as the Romans’; gaztelaniaz antzera: ‘Allá donde fueres, haz lo que vieres’; euskarazko ordaina, ostera, absurdoarekin jokoan dagoela dirudi modu guztiz harrigarrian eta beste hizkuntzetara modu ezin itzulizkoan: ‘Donostian Donosti, gorostian gorosti’. Esaera ezagun honetan ‘Donosti’ zein ‘gorosti’ hitz guztiz hoskideekin joko bitxia egiten da (Mitxelena: 1953)<sup>1</sup>.

Euskal esaera bakarren gainean badira zenbait lan monografiko. Mitxelenak, esaterako, artikulu monografikoak eskaini

---

<sup>1</sup> Honelaxe dio maisu errenteriarrek Oihenarten 282-‘Isana isen gaisa’ esaeraren gainean: Por otra parte, la aproximación en contraste de izen e izan (como el de uste y hasta el perfectamente absurdo de gorosti y Donosti) es bien popular. Pero, entre nosotros, izana no denota un estado acabado, sino por el contrario una realidad presente, “la realidad”. En Rentería he oído una “frase famosa” atribuída a determinada señora y pronunciada en circunstancias de larga y ligeramente difícil explicación: Batzuek fama ta besteak izana, “unos tienen la fama y otros la realidad.” Aquí fama pudo muy bien suceder a un izana anterior. Y hasta he visto un artículo periodístico cuyo título era: Izenik gabeko izana obea da izanik gabeko izena baiño.

zizkien Oihenarten bildumako zenbait esaerari zein 1596ko RS liburukoei. Errenteriko maisuaren artikulua monografiko horietako bat, ordea, XVI eta XVII. mendeetako bilduma zaharretako paremia baten gainean izan beharrean, XIX. mendeko eskutitz batean agertzen den ‘Aritzak du azala ametzak bezala; ezin lezake zarrak gazteak bezala’ esaera zaharrari eskainia da (Mitzelena: 1959).

Gure lantxo honetan esaera beraren gaineko argitasun berri gehiago eman nahi genituzke. Arrazoia garbia da: Mitxelena 1959 urteko artikulua argitasun berriak eman arren ez ditu, garbiro azalduko dugunez, esaera zaharraren misterio guztiak zulatzen. Gure lan honetan misterio guztiak zulatuko ez baditugu ere, datu eta argitasun berriak emango ditugu.

## **2. Juan Bautista Martikorenak dakarren: “aritzak du azala ametzak bezala, ezin lezake zarrak gazteak bezala” esaera**

Juan Ruiz de Larrinagak Pedro Antonio Uriarte (1812-1869) frantsiskotarraren eskutitzak argitaratu zituenean (Uriarte: 1958), hainbat datu eta estutitzen artean Uriarteren kartako esaera bati ohar bat jarri zion. Pedro Antonio Uriartek Luis Luiciano Bonaparteri idatzitako karta 1865. urtekoa da (Axpe, 21 de enero de 1865). Karta horretan gaztelaniazko esaera bat jartzen du “El refrán vizcaino es del que quiere meter un clavo en la pared con la cabeza y dice: “O clavo meter, o cabeza romper”. Juan Ruiz de Larrinagak, Uriarteren karten argitaratzaileak, (412 orrialdean, 249 oharrean), P. A. Uriarteren gaztelaniazko esaera honi ohar bat egin, oinoharrean:

Poco versados nosotros en paremiología vasca, ni castellana, desconocemos este refrán a que alude, aplicádoselo a sí propio, el buen P. Uriarte. Brindamos el caso a nuestros pare-

miólogos, y aprovechamos la ocasión para darles cuenta de otro muy lindo, poco o nada conocido, que guardamos entresacado de una carta particular de otro exclaustro franciscano, R. P. Fr. Juan Bautista Marticorena, y es el siguiente: “Aritzak du azala –ametzak bezala, –ezin lezake zarrak –gazteak bezela”.

Juan Ruiz de Larrinagak paremiologoei egin zien eskaintea ez zuen bertan behera utzi Koldo Mitxelena eta aldizkari bereko hurrengo zenbakian artikulua labur bezain argitsu bat idatzi zuen esaeraren jatorri bat emanez (Mitxelena: 1959):

Fr. Juan Ruiz de Larrinaga, en sus eruditas notas a las cartas dirigidas por el P. Uriarte al príncipe Bonaparte, publicadas en esta revista, citaba (14, pág. 412, nota 249) un refrán “muy lindo, poco o nada conocido”, que había visto en una carta de Fr. Juan Bautista Marticorena: *Aritzak du azala –ametzak bezala, –ezin lezake zarrak– gazteak bezela*.

Se puede asegurar, sin embargo, que este proverbio debió ser en otro tiempo muy conocido, aunque hubiera dejado de ser popular, pues se encuentra en un libro que fué tan consultado entonces como poco estimado ahora. En efecto, en el famoso *Diccionario trilingüe del Castellano Bascuence y Latín* del P. Manuel de Larramendi, s. v. *viejo, vieja* (San Sebastián 1745, II, pág. 373), se lee: “Dice assi un refrán, *aritzàc azalá, ametzac bezalá: zarrac ecin daquique gazteac bezala*: y quiere decir, que el quexigo, especie de roble, y el roble echan, o tienen corteza semejante, pero que los vejos no pueden hazer lo que los mozos”.

Mitxelenak, jakina, Larramendiren hiztegia ondo aztertua zuen ordurako eta Juan Ruiz de Larrinagak egiten duen eskintea (“Brindemos el caso a nuestros paremiólogos”) ezin zuen bertan behera utzi eta ohar hori idatzi zuen. Ez dago, bestalde, esan beharrik: Juan Bautista Martikorenak dakarren *Aritzak du azala ametzak bezala; ezin lezake zarrak gazteak bezala* eta Larramendik bere hiztegian dakarren *Aritzàc azalá ametzac bezalá: zarrac ecin daguique gazteac bezala* bat datoz. Batean *dezake* dena bestean *daguique* da; batean *Aritzak du azala* dena bestean *Aritzàc azalà* da<sup>2</sup>.

Ez dago dudarik Larramendik dakarren esaera zaharra herritik hartu zuela, ez zuela inondik inora ere asmatu; era berean, Juan Bautista Martikorenarena ere herri-herrikoa da. Pena da, ordea, Juan Ruiz de Larrinagak aipatzen duen karta horren transkripzio fidel bat ez izatea esaera zaharra zein testuingurutan erabilia izan den jakiteko. Mitxeleneak, bestalde, bere artikulua ohar interesgarri batekin bukatzen du:

Debiera ser innesario, pero acaso no lo sea del todo, recordar que ese *Diccionario*, aparte de otras muchas informaciones nada despreciables, tiene desparramada una bonita colección de refranes. Por las notas sueltas que encuentro entre las páginas (ejemplar de su propiedad, veo que don Julio de Urquijo se dedicó a entresacarlos para su Refranero vasco, pero, que yo sepa, no llegó a publicarlos y comentarlos en conjunto.

---

2 Larramendik errata edo huts txik batekin dakar esaera (viejo hitzean Diccionario II liburukia, 373 or.) : Dice assi un refran, aritzàc azala, ametzác bezalá: zarrac ecin daguiqae gazteac bezala: (...). Bestela esan, daguiqae delakoa daguique izan behar du, nahitaez. Mitxelenak, era berean, ez du guztiz ondo transkribatzen Larramendiren esaera zaharra eta Larramendiren daguiqae delakoa daguique bihurtzen du, daguique egin beharrean.

Mitxelenak ematen duen argitasun honetaz landa, ez ote li-teke beste iturri zaharragorik aurkitu?

### **3. Aritzak du azala ametzak bezala..., koplak bat esaera bihurtua da**

Zenbait koplak zahar esaera bihurtu ohi dira. Esaera bihurtzen diren koplak zaharrak dantza-koplak zein eske-koplak izan litezke. Are gehiago, batez ere dantza-koplak esaera bihurtu badaitezke ere, zenbait eske-kopla ere bihurtzen dira. Artikulu honetara ez dugu esaera zahar bihurtu den dantza-koplarik ekarriko. Azterlan hori hurrengo baterako utziko dugu. Eske-kopla esaera zahar bihurtuaren adibide garbia on Jose Migel Barandiaranek Saran bildutako bat da. Ataungo jakintsuak Saran bildu zuen esaeretako bat hau da: *zapata txuriak paperez, euri denean baterez* da. Honelaxe azaltzen du (Barandiaran: 1974):

*Zapata zuria paperez, uria denean baterez*, “zapato blanco de papel, cuando llueve, trasto inútil”. Indica la suerte de las prendas baratas, o de material endeble.

Esaera hori beste bilduma askotan bildua da, inolako dudarik gabe. Esaera honen jatorria garbia da: eske-kopla ezagun bat da, batez ere Gabonetako eskabideetan kantatu ohi dena. Honelaxe bildu zuen, esaterako, aita Donostiak (Donostia: 1918):

Zapata xuri paperez  
busti ezkerok baterez.  
Nagusi jauna erraiguzu  
asiko geran edo ez.

Era berean lan honetan aztertzen ari garen Larramendik dakarren esaera eta Martikorenarena ere kopla bat da:

Aritzac [...] azala  
ametzac bezala;  
zarrac ezin daguique  
gazteac bezala. (Larramendi)

Larramendik biltzen duen baino osoagoa ez ote da Martikorenarena?

Aritzak du azala,  
ametzak bezala;  
gazteak ezin dezake  
zarrak bezala. (Martikorena)

Esaera bihurtuak dauden bi kopla hauek kopla zaharren teknika dute. Jose Ariztimuño ‘Aitzol’ ikertzailearen terminologia erabiliz gero, ‘Irudia’ eta ‘oldozkuna’ dituzte. *Ametzak du azala haritz gazteak bezala* kopla-erdia irudi bat dugu, izadiko arbolez osatua eta bigarren erdia ‘oldozkuna’ edo ‘pentsamendua’ dugu. Kopla hau Itsasun kantatzen den ihauterietako kopla bat bezalakoa da (Donostia: 1918). Hona hemen:

Ametzak eder azala,  
haritz gazteak bezala:  
Zuk etxeko andre zaharra  
etxe huntan bada zure beharra.

Garbi ikusten denez, Itsasuko ihauterietako kopla eta Larramendik zein Martirikorenak dakarten esaeraren lehen zatia, iduria, bat datoz. Itsasuko ihauterietakoak ordena aldatua da “(h)aritz” arbolarekin hasi beharrean “ametz” arbolarekin hasten da. Kopla zaharren egitura zaharretan “eder” bat agertu ohi da, gehienetan. Horrexegatik dator “Ametzak eder azala” lehen lerroan. Tankera horretako beste kopla batzuk ere badira. Toberetan, esaterako, bi kopla hauek kantatzen ziren (Donostia: 1924).

Arboletan fiñena da  
gereziaren azala:  
neri eskia eman diranak  
Jainkoak bedeinda (d)ezala.

Korostiaren azala  
ez da bertze bat bezala:  
Nobi an[d]re oi utzi bezate  
beorrek nai duen bezala.

Bi kopla hauetan garbi ikusten da *azala* eta *bezala* hitzen hoskidetasuna. Azala hitza, bestalde, oso lotua dago arbola bati. Bi kopla hauetan ‘geriziaren azala’ eta ‘korostiaren azala’ direlakoek argi erakusten dutenez. Neurri batean behintzat oso antzekoa da beste kopla hau ere:

Basoan eder ezpela,  
nik ezin esan bestela;  
zure besoan lo egin liteke  
paradisuan bezela.

Puntu honetara ekarri ditugun kopla guztiak irudidunak dira: basoko arbola bat aipatzen dute, dela haritza edo ametza, gerezia, korostia edo ezpela.

#### 4. Gure kopla agertzen den sail osoa

XX. mendean batez ere bildu dira eske-kopla sailak. Ezagutzen da, ordea, XIX. mendean bildutako sail bat edo beste, baina oso bakanak dira (Urkizu: 2009). Puntu honetan koplaren testuinguruaz hobeto jabetzeko aita Donostiak bildu zuen Itsasuko kopla-sail osoa jarriko dugu (Donostia: 1918).

##### I

Heldu gira urrundik,  
gaua bidean emanik  
gaua bidean emanik eta  
ihauteria entzunik.

##### II

Landan eder gereta,  
Baxenabarren Heleta;  
zerbeit merezi ginuke  
handik hunat jin eta.

##### III

Ametzak eder azala,  
haritz gazteak bezala:  
zuk etxeko andre zaharra  
etxe huntan bada zure beharra.



IV

Hortxe zaude jarririk,  
koloria gorririk;  
gure zerbeit emaiteko  
jaiki behar zira hortik.

V

Goazen, goazen hemendik;  
hemen ez duk xingarrik:  
etxe huntako gazikutxan  
saguak umeak egiten tik.

Lehen koplak argiro erakusten du ihauterietako koplasegida baten aurrean gaudela: *heldu gira urrundik/ gaua bidean emanik/gaua bidean emanik eta/ ihauteria entzunik*. Azken kopla diru edo gazigarri gutxi ematen zutenei eskainia da. Ikertzaileek –batez ere Azkuek, aita Donostiak– bildu dituzten Ihauterietako kopla-sailak Gabonetakoak, san Juane-takoak edo santa eskekoak baino kopla gutxiagokoak dira. Aintzinatean kopla-sailak aberatsagoak izango ziren, jakina, baina gurera iritsi diren kopla-kateak katebegi edo kopla gutxikoak dira.

## 5. Ondorio bezala

Gure lan honetan eske-kopla zahar bat nola bihurtu den esaera zahar edo paremia erakutsi nahi izan dugu. Esaera zahar bezala bi iturri zahar besterik ez ditugu ezagutzen, Larra-mendi eta Martirikorenarena. Eske-koplaren iturriak gutxiago dira, hala ere. Gure esaera zaharra berez eske-kopla argi bat dugu. Eske kopla honetako iturri bakarra Aita Donostiak XX mende hasieran bildu eta 1918an argitaratu zuen ihauterietako kopla-sail txiki bat da.

## **Bibliografia**

- BARANDIARAN, Joxemiel (1974), “Bosquejo etnográfico de Sara” (XIII), *Obras completas VI*, 78 or
- LARRINAGA, Juan Ruiz (de), (1958), “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte (conclusión)”, BRSAP, 297-443.
- MITXELENA, Luis(1953): “Sobre dos refranes de Oihenart”, BRSVAP, 555-556.
  - (1959), “La fuente de un refrán”, BRSVAP, 74-75.
- URKIZU, Patri (2009), “Ziri-bertso eta eske-kopla argitaragabeak (1770, 1827)”, *Juan Mari Lekuonari omenaldia*, Iker 23, 429-443.
- ZULAIKA, José Gonzalo (Aita Donostia)(1918), “Canciones de cuestación. Olentzero”, RIEV, 141-172.
  - (1924), “Toberak”, RIEV, 1-18.

*Jabier Kaltzakorta*